

32. atala: Bakarka

## Pottokiak

32.1- Pottokiak hizkuntza desberdinetan nola izendatzen diren aipatzen da entzungai honetan. Zein hitzen bila dabil zehazki Kevin?

- schlumpf                                       Schtroumpfs                                       smurf

Zein hizkuntzatan esaten zaie horrela pottokiei?

- alemanieraz                                       frantsesez                                       ingelesez

32.2.- Astronautek pottokien ezaugarri batzuk aipatzen dituzte. Zerrenda honetatik zeintzuk?



	BAI	EZ
urdinak dira	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
asko dira	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
nortasun bereizgarria dute	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
batek bizar zuria eta txano gorria du	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
piropoak esaten dituzte	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
flauta ahotsa dute	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
itsusiak dira	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
amarrutsuak dira	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
aspaldikoak dira	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

32. atala: Bakarka

32.3.- Entzungaian, 7 ipotxak, David iratxoa eta pottokiak aipatzen dituzte besteren artean. Beheko deskribapenak zeinekin lotuko zenituzke?



Pottokiak



Ipotxak



Iratxoak

1.- \_\_\_\_\_

Europako hainbat herritako herri-ipoen batean agertzen diren pertsonaiak dira. Bertsio ezagunena Grimm anaiek 1812. urtean argitaratutakoa da. Bertan ispilu magiko bat agertzen da. Beste bertsio batzuetan, ispilu magikoaren ordez, ilargia edo eguzkia agertzen dira eta pertsonaia hauek lapurrak dira.

2.- \_\_\_\_\_

Herri-usadioaren arabera itxura txiki eta giza jarduerak dituzten izaki txikiak dira, pisu txikikoak eta txano koniko bat dutenak. Basoetan bizi dira, eta batzuetan gizakion lorategi eta etxeetan. Ohitura hau oso hedatua dago Europan zehar, batez ere Iparraldeko Herrialdeetan eta Ingalaterran, handik Estatu Batuetara igaro zen.

Izaeraz onberak dira, naturarekin bat eginik bizi dira, eta bertatik beharrezkoa dutena bakarrik ateratzen dute. Gizakiekin harreman gutxi izaten dituzte; nahiz eta, ondo portatuz gero, gizakiari ere lagundu edo ongia egiten dioten. Askotan Euskal Mitologiako galtzagorriekin parekatu ohi dira.

3.- \_\_\_\_\_

Belgikako Peyo marrazkilariak egindako pertsonaiak dira. 1958an sortu zituen *Le Journal de Spirou* astekarirako. Ikaragarria izan zen ongia egiten duten iratxoaren pareko izaki txiki hauen arrakasta; ondorioz, beraiek protagonista ziren istorio propioak egiten hasi ziren urte baten buruan, baita pelikula, marrazki bizidun eta bideo-jokoak ere.



**32. atala: Bakarka**

## Transkripzioa (02:43)

T- Johnson, hator hona eta lagun iezaadak honekin.

K- Kar, kar, kar... baina zer gertatzen zaizu? e... zer gertatzen da?

T- Pottokia dirudik.

K- Pottokia?

T- Bai, pottokia... badakik...

K- Flauta ahots horrekin entzuten nauzu eta bat-batean piropoak botatzen hasten zara? Sarasola, moztu zaitez!

T- Pottokiak, Pitufoak.

K- Ez segi, azkenean zure besoetan ereriko naiz-eta... Badakizu bizioetan berehala erortzen den horietakoa naizela.

T- Jakin beharko hukek, azal urdina zuten izaki horiek.

K- A! Avatar-ko itsusi zatar horiek?

T- Ez duk Avatar, zaharragoak dituk, mitikoak. Bahuan bat bizarra zuria eta txano gorri batekin.

K- Santa Klaus?

T- Ez, ez, ez.

K- David iratxoa?

T- Txiki txikiak hituan bai, eta bakoitzak nortasun bereizgarria zian.

K- A! Edurnezuriren 7 ipotxak.

T- Aizak, iseka egiten al habil?

K- Iseka? Joder, Tasio, ahotsaz gain, zure hiztegia ere findu egin da.

T- Bueno, baina badakik zertaz ari naizen, ezta? Pottokiak, Pitufoak.

K- Baietz bada! baina izena ez zaidanez ateratzen denbora irabazteagatik aipatu ditut beste ipotx guztiak.

T- Beti al haiz hain amarrutsua?

K- Amarrutsua? Uste baino larriagoa da. Ahotsaren kontu honek zure garunari eragin eta hizkuntza berri bat asmatzen ari zarela iruditzen zait.

K- Aizu, azala ez zaigu urdindu, ezta?

T- Ez ezak esan txorakeriarik, e? baina ahotsaren kontu honekin apur bat arduratzen hasia nauk, e?

K- Besterik gabe helio-isuri bat izango da.

T- Ja, baina denbora gehiegi gabiltzak helioa arnasten eta dosi handietan pozoitsua ere izan zitekeek.

K- Suposatzen da Hal-ionek konpondu beharko lukeela.

T- Hain zuzen ere, bilatu dezagun isuria berandu baino lehen.

T- Bueno, eskerrak gure ahotsak bere onera itzuli diren!

K- Zure hiztegia ere maila ulergarri batera itzuli al da edo?

T- Zer gertatzen duk ba nire hiztegiarekin?

K- Smurf!.. Bere izena smurf da! Ipotx urdin txikiek Smurf izena dute.

T- Miamin hala izango dituk, baina hemen, pottokiak.

K- Hemen? Hemen zer? Espazioan esan nahi duzu?

T- Hemen Trebiñu II duk, e? Eta hau Euskal Herriaren espazio enbaxada bat dela esan genezakek.

K- Aii, Sarasola, Sarasolita, bai pottoki jartzen zarela, serio jartzen zarenean... kar, kar!

**32. atala: Bakarka**

## Erantzunak

### 32.1

- Smurf
- Ingelesez

### 32.2.-

	BAI	EZ
urdinak dira	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
asko dira	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
nortasun bereizgarria dute	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
batek bizar zuria eta txano gorria du	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
piropoak esaten dituzte	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
flauta ahotsa dute	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
itsusiak dira	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
amarrutsuak dira	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
aspaldikoak dira	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

### 32.3.-

1. Ipotxak
2. Iratxoak
3. Pottokiak